

NARRATIBA

Auto...biografia?

AUTOKARABANA

Fermin Etxegoien
Pamiela, 2009
323 orrialde. 22,50 euro

Ainara MAIA

Bizitzaren autobideak ez du zentzurik, ezta itzulbiderik ere. Bizitzaren barnean goaz gutako bakoitza, batzuk bizkorrago, besteok mantsoago, eta bizitzak aitzina segitzen du, gu gabe nahiz gurekin. Gurpildun tramankuluetan korrika eta presaka goaz ea nor lehenbizi iritsi; nora? Pentsatzen paratu gabe sentimenduak gurpilek zapal ditzaketela, eta zapaltzen dituzte; gelditu gabe, baina denok irribarretsu, irribarrea tristea bada ere, unibertsuari eskatuz gogo biziz gure alde para dadin.

Hori dio, bederen, Paulo Coelho, eta hari arras ongi doakio. Hori dio Fermin Etxegoien idazlearen eleberririk onetako protagonistak ere, eta dena nahiaz beste ateratzen zaio, «zerbait desiraturuz gero gogo biziz unibertsoak berak konspiratzen du lor dezazun», behin eta berriz errepikatzen badu ere; Paulo Coelho lortu duen arrakasta hain da handia garai postmoderno hauetan, unibertsoaren konspirazio hori sinetsi beharra duela. Ni, berriz, Coelhoen "Alkimista" liburua oroitu naiz, ahazteaz ikasi ez dudalako oraindik.

Herri hizkera erabiltzen du idazleak, zenbaitetan arrunkeiaz mintzo ere, erranen nuke, gizonezko ikuspegi bate-



tik gaur egungo euskal gizartea hankaz gora paratzeko, edo gutxienez zer pentsarazteko euskal gizartearen arlo guztiei buruz.

Sexu-minez etengabe dagoen banandutako aita herri txiki bateko kooperatibako langilea bere herrian lanean; emazte ohia eta alaba txikia Bilbon ditu. Hasieratik esaldi zuzen eta ulerterrazetan barnea aise murgildu naiz, tarteko pertsonaia arteko elkarriketa laburrekin.

Hizkuntzarekin jolas egiten du, ez preski euskara jator edo zuzen batean; horrela euskarari buruzko iritziak botatzen ditu. Hasieratik nahastu ditut idazlea bera eta protagonista, lehen pertsona ida-

tzia dagoelako, eta gainera liburuaren amaiera aldera arte ez baitu aipatzen protagonistaren izenik: Elias Aldasoro.

Gizonezkoaren ikuspegitik kontatzen du protagonistak 2007. urtea hasi berri-tan bere eguneroko bizitza pertsonal nahiz profesionala. Bizimodu modernoa ez du asetzen eta dena kritikatzeko, baita gizentasuna bera ere. Gaur egungo euskara planek gogaitzen dute, bere ama-hizkuntza euskara izan arren, erosoago sentitzen delako erdaraz. Hiriaren eta herriaren artean dago banatuta protagonistaren patua, baina ez dut nik eleberria kontatuko hemen.

Bizimodu postmoderno hau kritikatzeko etengabe Eliasek; bizitza bakarra bizi dugun arren, kontrako sinetsarazten zaigulako haren ustez, hamaika batera bizi genitzakeela, autokarabanaren irudi zoragarriaz noranahi joan eta bizi alegia. Baina nora joan?

Azken batean, zertarako izan supergizon bat, etengabeko aseizintasun batean bizitzeko? Norberaren egia bilatzea da norberaren patua, nahiz eta bizitzak badakien bidegabe izaten, baina gure etsipenak, haserreak eta tristurak baretzeko mundu postmoderno itogarri honetan nork bere barnera begiratzea beste biderik ez dagoela esaten du Paulo Coelho berak ere.

Eta eleberriko protagonistak bere amorrua baretzeko bere egia paper eta boligrafoarekin korapilo guztiak (lana, familia, maitasuna, sexua, bizitokia...) askatu nahi izan du idazleak eleberririk onetako. Pentsarazteko galderak botatzen ditu, gainera!



Tere IRASTORTZA

Ezin segi

L arunbat arratsaldean dun. Baratzuriak xehe-xehe egin eta asteko otordu batzuk prantatzen ari naun. Baratzuri, tipula eta piper berdeak ia denerako balio dutela ari naun ikasten. Eta ez naun Bilbora joan, hogeita-malau gazte horiek atzemateko Euskal Herriaren barrena ibili diren beste seiehun eta berrogeitamar txori horiek bezala, neu ere. Euskal Herria ez ei da kultur-kontzeptu orokor bat halakoetan.

Baina horrelako txori batzuk eta bele batzuk eta zapelatz eta putre batzuk ez bezala, bestelako asko eta asko, joan ez garen asko eta askok bihotza estututa zaukanagu: gazte izaten ere erakutsi egin behar omen zienagu geure txita eta oilanda eta oilaskoei. "Gazte izaten" esan dinat eta "esanezko izaten" jarri behar niran. "Izaten" idatzi dinat eta aditz hori ez esaten ikasi behar dinat. Beraz, ikasi ez eta "ahaztu" ere idatzi behar harko dinagu: gazte izan garelako ahaztu.

Ostiralean zutabe hau irakurtzerako, agian, jostelan batzuetan ere aritua izango haiz, edo bere autolari olio aldatzen... edo edo bere gela txukuntzen, beti hankaz gora uzten zinan gela hori jaso ez izanagatik emandako errietekin penatzeaz batera.

Halakoetan etortzen dun eta burura zein baldintza gabekoa den senez sentitzen dugun maitasuna, nola lehertzen diren bihotzean gure aurrekoen ezin geure ondorengoak kateatzen dituzten loturak, nola erortzen diren eskuetatik egutegietako ospakizun-egunak.

Zer ospaturik ez dagoenean denborak erre egiten bait gaitin, luzez sutan lagatuko ontziak bezala: denborak erre eta lurrundutako ametsek ontzi-ipurdian erantsita geratu, alferrik pasatzen utzitako aukerak bezala.

Larunbat arratsaldean geldi zihuan eta ezin beti segitu eta jarraitu ezer gertatu ez balitz bezala, nahiz eta ezer gertatzen ez denean bakarrik, izan, dena gertagarri.

KALERATU BERRIAK



MARI ERRAUSKINEN BERRIDAZKETA

MARIZIPRITINEK EZ DU ZORIONEKO GALEPERRIK NAHI
Munila Lopez eta Myriam Cameros
Txalaparta, 2009 | 64 orri. 15 euro

Itziar de Blasek eta Mikel Garmendiak euskaratuta, komiki hau tratu txarrak jasandako emakume talde baten eskatutako lanaren emaitza da, Mari Errauskin ipuin klasikoaren berridazketa hain zuzen ere. Eskaintza garbia da: «Bizitza aldatu nahi duten emakume ausart guztientzat eta bizitza galdu dutenentzat».



NOR OTE DA HILTZAILEA?

JACK DESTRIPTAZAILEAREN ARRASTOA | Joxemari Iturralde
Ibaizabal, 2009
216 orrialde. 10,45 euro

1888ko uda. Patrizio Dagerrezahar mutila iritsi berri da Londresera, Whitechapel auzo arriskutsura. Bertan gauza izugarriak gertatzen hasi dira: Jack Destripatzailearen emakumeak hiltzen hasi da. Jendea, Londres osoa, ikaratuta dago, baita gure protagonista ere. Nor ote da hiltzailea? Gazteei zuzendutako liburua da honakoa.



HAUR FOLKLOREAREN BILDUMA

PUNTAN PUNTA BAT
Xabier Etxaniz Erle
Pamiela, 2009
160 orrialde. 14 euro

"Haur Folklorearen Bilduma" liburuaren ondorengoa da hau. Aurreko hura bera, osatua eta zuzendua; baina, aurreko hura bezala, tresna egokia gure tradizioaz jabetzeko eta jolasteko. Haurrei zuzendutako bilduma honetan iragana orainaldira ekartzen da; euskal folklorea gaur egungo gizartera, jolasteko eta ikasteko.



BEGIRADA ZORROTZEKO NOBELA GRAFIKOA

POLOLOAK 3: ATXERITOKO BALADA
Patxi Gallero
Elkar, 2009
240 orrialde. 23 euro

'Atxeritoko balada' honekin "Pololoak" trilogiari amaiera ematen dio Gallegok. Hirugarren-eta azken-nobela grafiko honek besteen ezagutze guztiak ditu eta, berriro ere, egilearen agerpena azpimarra daiteke, zertzelada soziologiko zorrotz bezain barregarrien agerpena alegia. Azken hau, gainera, koloretan argitaratu dute.